

# JAKA

## INGURUKO MENDIETAN

Euskaldunontzat Jaka oso herri ezaguna da, baita bertatik abiatu eta Pirinio aldera jo eta igo daitezkeen tontor ezagun asko eta asko. Nork ez ditu Collarada, Aspe, Bisaurin edo Telera mendi ederrak ezagutzen? Hala ere, sarritan, oso ezagunak diren mendi hauek, Jakatik gertuago dauden beste mendi batzuk izkututzen dituzte edo hobeto esanda, ez dugu horietan arretarik jartzen eta ezagutu arren, bertara joateko asmorik ez dugu izaten. Pirinioak lainoak hartuta daudenean edo eguraldia oso segurua ez denean, mendi garaietara joateak ez du merezi edo behintzat, arriskutsua gerta daiteke. Zer egin orduan? Halakoetan, mendi apalagoak eta samurragoak bilatzen ditugu eta horregatik, mendi garaietan ibili nahi ez edo xendazaletasuna gogoko dutenentzat, aukera interesgarriak izan daitezke segidan proposatzen ditugun mendi irteerak.

### TESTUA ETA ARGAZKIAK



Aurea Salazar Jauregi  
(Bergara, 1968)

Irakaslea ogibidez. Azken urte hauetan mendiaz gozatzeko sortu berri zaion zaletasunak, Euskal Herriko mendiak ez ezik, Pirinio eta Iberiar penintsulako mendiak ezagutzera bultzatu du.

[La Lerako bidean lepoa heltzean](#)





## GROSÍN (1422 m)

Grosin mendia, Jaka herriaren ipar-ekialdean 1422 metrora kokatuta dago. Gertuko haranetatik ia ikusten ez bada ere, bere gailurretik dagoen ikuspegia bikaina da, Pirinio eta Aurre Pirinioetako tontorrek ikusteko talaia paregabea da, batik bat Collarada eta Peña Oroel/Uruel. Abiapuntu moduan Jaka bera izan daiteke edo Guasillo herria bestela. Jaka-tik abituz gero, sartalderantz, erreka aldera bidexka bat ateratzen da edo bestela errepidea jarraituz egin daiteke. Kasu honetan Guasillo herriraino errepidetik kilometro batzuk bete behar dira. Herriaren sarreran markatuta dagoen pista bat jaiotzen da eta bertatik jarraituz aurrera egiten da erraz. Pistaren hasieran, argibide-taula moduan ipinitako mapa bat dago egingo dugun ibilbidea ikusteko aukera ematen duelarik. Pista zabala izan arren, ko-txeentzako itxita dago. Pinu motzen artetik pixkanaka altuera irabazten joaten da. Pista hau, inguruko beste herri batzuetara zuzentzen diren beste pista batzuekin gurutzatzen da eta mendiko txirringaz ibiltzeko aukera ederrak eskaintzen ditu.

Aurrera segi eta gorantz joko dugu. Puente Las Grajasetik datorren bidearekin bat egin eta tontorra gertu sumatzen da. Tontorrera igotzeko aurrez aurre ikusiko dugun azken maldari aurre egiteko, lurra marrazten den bidezidor nabarmenetik egingo dugu eta konturatu orduko tontorrean izango gara. Hogeita bat minutu beharko ditugu ezpel eta otabera artean antzinako gazteluaren aurrien eta gertu dagoen tontorrera igotzeko. Lur azpian eginiko eraikuntza kurioso hau, Grosingo gazteluaren hondakinak dira. Eraikin honen aipamenik zaharrena 867 urtekoa da. Gerora, 1267 urtean Pedro III.ak Pedro Corneli feudo gisa eman zion eta urtebete beranduago, Al-



Mil campanas trikuharria


fonso III.ak Rodrigo Jimenez de Lunari pasa zion dohaintza moduan. Azkenean, Juan I.ak Jaka herriari eman zion 1393an. 1808 urtean, frantsesekin izandako gerraren ondorioz, bere dorre nagusia, "Torre Gorda" izenez ezaguna, frantsesek ezkutatzeko erabaki zuten. Geratzen diren hondakinak landaretzak ezkutatzeko erabaki zuten, baina oraindik irudika daiteke izan zenaren itxura. Hogeita hamar metroko laukizuzeneko oinarriak harresi bat zuen eta bere albo batean dorre bat altxatzen zen. Urtero, Eguerritan, bertan jaiotza bat jartzen da eta hauek igaro eta gero, kendu egiten dute.

Egia esan Grosin tontorrean ez dago leku handirik eta erpin geodesikoak betetzen du zatirik handiena. Ezpelaz eta sastrakaz inguraturiko gutunontzi bat eta panoramika bikaina. Inguruko mendi ezagunetz gain, haran estu eta luzeak ikus daitezke. Ikuspegi luze gozatu eta gero, etorritako bidetik abiapuntura itzuliko gara.

## CUCULO (1549 m) ETA SAN SALVADOR (1547 m)

Iruñatik Jakarako bidean, Binacua herriaren parean goititzen den Cuculo mendia maiz ikusi arren, ez dugu inoiz arretarik jartzen. Egia esan, mendi honek engainatu egiten du, errepidetik ikusita altuera txikikoa dela dirudi eta ez du gure interesa pizten, baina ezagutzen gero, ederra irudituko zaigu.

Ohiko abiapuntua Santa Cruz de la Serós herria izaten da normalean, nahiz eta San Juan de la Peña monasteriotik ere bada auke-



rarik bertaratzeko. Herriaren sarreran dagoen aparkalekuan kotxea utzi eta bi aukera izango ditugu. San Juan de la Peña monasteriora zuzentzen dena aukeratu gero, bizpahiru kilometro errepidean barna bete eta errebuelta itxi batera iristean, ur depositu baten ondoan, errepidea utzi eta mendian gora abiatu behar da. Puntu honetatik aurrera, basoan zehar oso markatuta dagoen bide nabarmena jarraitzea besterik ez dago. Izei, pinu eta pagoen erreinua dirudien basoak, Frantziako Pirinioetako haranen itxura hartzen du. Ikusgarria bezain ederra. Baso bikain hau Eretas lepora heltzean amaitzen da. Hegoaldeko Cuculo mendiaren tontorrera igotzeko bidezidorra hartuko dugu edo bestela gandorretik (harriri piloak). Batetik zein bestetik, erraz izango dugu eskura tontorra. Esa urtegia kokatzen den Aurre Pirinioetako sakonunearen, Berdúneko kanalaren eta Jakako eskualdearen panoramika bikainaz aukera ezin hobea izango dugu bertatik.



La Lera tontorrera heltzen

Igotako bidetik lepora itzuli eta aurrez aurre agertzen den aldapari eutsiz, San Salvador tontorreraino igotzen da. Bertan dagoen ermitan Erdi Aroko margo bat dago, baina kopia da, originala gordeta baitago. Hiru tontor daude eta hirurak egitea oso erraza da. Ermitak, iparraldera begira eserleku bat du eta hegoaldera begira beste bat. Atsedena hartu eta bi isurialdeek erakusten duten ikuspegi desberdinez gozatzeko aukera ezin hobea.

Hemendik Monasterio Nuevo bidea hartu eta aurrera egiten da gandorreen zehar. Bi aldeetara pareta bertikalak daude, baina erortzeko arriskurik ez. Bide polita, konglomeratuko harriztan zehar. Ordubate bertatik ibili eta gero, Monasterio Nueva hertzen da. Hemen, berriz, bi aukera izango ditugu: Santa Cruz de la Serósera eramaten duen bidexka hartu edo San Juan de la Peña monasteriora doan bidea segitu eta hemendik karretera jarraituz igoeran basoa sartzeko bihurtune itxia zegoen lekuan azaldu. Kotxea hemen utzi izanez gero, zeharkaldia ordu pare batez labur daiteke. Bide zaharra hartuz gero, galtzada zaharraren arrastoan jaitsiko gara abiapuntura, herrira hain zuzen ere.

## LA LERA (2132 m) ETA BACÚN (2191 m)

Itzuli hau egiteko Hoz de Jaka herrian bertan, Garcipollera ibarreko bidea erakusten duen seinale bat ikus daiteke, beraz bideak ez du galararik. Bide estua izan arren asfaltatuta dago.

Ibar honek historia iluna du. Aspalditik gizakia- ren bizileku izan diren lur hauetan, hamaika lekuko geratzen da. Horren adibide dira, esate baterako, Villanúan dagoen Mil Campanas trikuharria, herri abandonatuak eta ermitak. Gerora, "zibilizazioak" ekarritako aurrerapenek, lurralde hauetan makina bat aldaketa eragin zituzten. Horren adibide nabarmena dugu Esako urtegia, herriak hustu eta ibarrak soiltzea ekarri zuten eraikuntza erraldoia. Errekek dakartzaten sedimentuak gutxitu asmoz, Garcipollera ibarra zeharkatzen duen ljuel erreka inguratzen duten lur guztiak desjabetu eta pinuz bete zituzten lur inguru guztiak. Suntsiketa erraldoiarekin batera, oreinak ekarri eta ehizarako erreserba sortu zuten. Historiaren pasarteak ezabatu zituzten bat batean, eta hori guztia bizitza hobea baten alde. Sinestezina!

Lur hauen historiaren pasarte ilun hauek bide bazterrean laga eta ekin diezaiozun ibilbideari. Castiello de Jakatik Garcipollera ibarrean barneratzen den bide asfaltatua amaitzen den lekuraino kotxez igo, bertan aparkatu eta ibilgailuentzat debekaturik dagoen pistatik aurrera egiten da. Erreka gurutatu eta kilometro pare bat bertatik bete eta gero, Iguaceleko ermitara heltzen da. Hau ikusteagatik bakarrik merezi du honaino etortzeak. 1040 edo 1050 urtean du jatorria, orduan hasi zen eraikitzen Galindo kondearen aginduz. 1080 urtean San Juan de la Peña monasterioari dohaintza eman zioten eta bertan, 1212 urte arte iraun zuten zistertar komunitate txiki bat instalatu zen.

Eraikin honek garrantzi handia du, batik bat Aragoi sarreran zirkulu-erdia zuen lehenengoetako eliza izan zelako, gerora Jazetania osora zabalduko zena. Horma-margo eta eskultura garrantzitsuak ditu.

Ermitara heldu aurretik, ehunen bat metro lehenago, eskuin aldetik pista bat igotzen da Acumuer haranarekin muga egiten duen mendi-bizkarreraino helduz. Tarteka, harri piloek erakusten diguten bidetik basoan murgildu eta gorantz segitzen da. Mendiaren gandorrera heltzean, etxeko leiho bat irekitzen dugun moduan, paisaiaren irudia zabaltzen zaigu begien aurrean. Basotik atera eta azkeneko errebutan, pista utzi eta zuzenean La Lera tontorrerantz joko dugu. Leku honetatik ibilbide oso marraz daiteke.

Lehen tontor honetatik Collarada-Telera mendilerroen panoramika osoa dugu, biak Aurín ibaiak erdibitzen dituelarik. Collarada, Collaradeta, Peña Nevera, Somola Alta eta Baja, la Punta de la Espata. Aurín ibaiaren beste aldera, berriz, Pala de los Rayos, Peña Retona, Telera, Cachivirizas eta Corona del Mallo. Mendiaren gandorrek Bacún (Ipar) aldera jarraitzen du eta bertatik Bisaurín, Llana de la Garganta, Aspe, Lecherines... eta beste hainbat mendi garai. Bidetik segituz, Bacún (Hego) mendiaren bigarren tontorrera iristen da. Hemendik aurrera, gandorretik segitzen da Burrambalako basoan murgildu arte. Bidezidorra nahasi samarra suertatzen da eta arreta berezia jarri behar zaie bidea seinaltzeko jarrirako harri piloei. Intuzio apur batekin, Iguaceleko ermitara jaitsiko gara eta bertatik abiapuntura.

